

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak ez du inbertsio handirik behar, baina hala ere kreditu bat eta Urola Kostako udal elkartea eta Eusko Jaurlatzaren diru-laguntzak eskatuko ditugu.

Alde batetik, lokal bat eduki beharko genuke, bertan egingo genituen gure lanak produktua biltegitatu ere enpresa txikia den bitartean. Handituz gero, beste lokal bat alokatu beharko genuke baina hasieran lokal bakar batean antolatuko genuke guztia. Ondorioz, argindarra, internet eta telefono konexioa, ura eta alokairua ordaindu beharko genituzke. Lehenengo biak zeharkako kostu aldakorrak dira, gastuaren arabera ordaintzen direlako. Alokairua berriz, zeharkako kostu finkoa da, ez delako aldatzen. Lokal horretan lan egiteko lekua beharrezkoa izango genuke, horregatik mahai bat, lau bat aulki eta lau ordenagailu beharko genituzke, kide bakoitzarentzat bat; biltegiko material guztiaz gain. Horiek ere kostuen barnean sartzen dira, zeharkako kostu finko bezala, izan ere, ez die produktuari zuzenean eragiten baina beharrezkoak dira.

Bestalde, gure produktua zabaltzeko eta bezeroak gurekin kontaktuan errazago jartzeko webgune bat izango dugu, hori dela eta webgunearen hostinga eta domeinua ordaindu beharko genituzke.

Hornikuntzan ere gastuak izango ditugu, gure produktua ez baita gure herrialdean ekoizten, AEBn baizik. Bertatik produktua ekartzeak garraioan kostu bat izango du, txip bakoitzak balio duenarekin batera. Bestalde, dendetara eta etxeetara produktua banatzeko garraio enpresa bat azpikontratatu dugu.

Azkenik, enpresako lau kideen soldatak ordaindu beharko ditugu. Ez dugu soldata finkorik izango, bakoitzak azken mozkinaren %20a izango du. Lau kide garenez, geratzen den %20a erreserba moduan gordeko dugu.

KOSTUA LEHENENGO HILABETEAN

Lokala	500€	x1	250€
Garraioa AEBtik	50€/100 txip	x300	150€
Garraioa dendetara eta etxeetara	5€/10 txip	x300	150€
Ordenagailuak	350€	x4	1400€
Soldatak	Mozkinen %20	x4	-----
Webgunearen hostinga	3€	x1	3€
Txipak	15€	x100	1500€
		Guztira:	1953€